


Mugikortasun-murrizketak direla eta, ahozko azterketa-egunerako egiaztagiririk behar baduzu, AZTERNET aplikaziotik deskargatu ahal duzu. Urrats hauek jarraitu:

1. Sar zaitez AZTERNET aplikazioan: <https://www.ivap.euskadi.eus/informazioa/zer-da-azternet/z16-a3azter/eu/> edo www.euskadi.eus webgunetik ere sar zaitezke, “Nire Karpeta” gunetik: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>
2. Aplikazioan sartu ahal izateko elektronikoki identifikatu behar zara, NAN digitalaren bidez edo IZENPE-ren identifikazio digital baten bidez (BAKQ, adibidez). EAEko administrazioekin izapide elektronikoa izateko onartzen diren identifikazio txartelen zerrenda duzu hemen: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>
3. Behin AZTERNETen sartuz gero, klikatu “Eskabideak” atalean eta gero “Hizkuntza-eskakizunak: eskabideen kontsulta eta jarraipena”:



4. Aukeratu aurtengo deialdia: 2020-05-25
5. Jarraian, klikatu “ahozko azterketaren lekua” eta bertan agertzen da zein egunetan, non eta zein ordutan egin behar duzun ahozko azterketa. Datu horiek guztiak inprimatu ahal dituzu “inprimatu” botoia sakatuta. Inprimatu duzun agiri hori egiaztagiri moduan erabil dezakezu.

Xehetasuna

